

KOSTU EGITURA

Gure proiektuak aurrera egiteko hainbat gasturi egin beharko diegu aurre. Kostu mota desberdinak egongo dira, batetik, kostu finkoak eta bestetik kostu aldakorrak. 650m²-ko espazioa izango dugu, bertan, 21 gela egongo dira, 20 bezeroentzat eta sobratzen den gela alkohola bezeroei eraman baino lehen prestatzen dugun tokia izango da, hau da, taberna txiki bat. 20 gela horietatik, 2, "Vip" modukoak izango dira. 18 gela normalen tamaina 30m² izango da, Vip gelena 50m²-koa eta gure taberna txikiarena 10m²-koa. Bestalde, 30 kristal transparente egongo dira, beste gelak ikusi ahal izateko eta gela Vip-en kasuan 6 kristal ilun egongo dira, kanpokoek barrukoa ez ikusteko baina barrukoek kanpooka bai. Vip gelak beraien artean kristal transparentea edukiko dute, ikusi ahal izateko. Gela normal bakoitzean sofa bat, bozgorailu bat eta disko-bola bat egongo da. Vip geletan, gela normalean dagoen materialaz gain taberna txiki bat egongo da. Langileen inguruan, atezain bat egongo da sartzan eta ateratzen den jendea kontrolatzen. Diskoteka barruan 2 begirale egongo dira jendea beste geletan sartu ez daitezen. 2 garbitzaile egongo dira, gau bukaeran gelak garbitzeko. Langileekin bukatzeko, alkohola geletara banatzen egongo diren 5 pertsona egongo dira eta Vip geletan pertsona bat taberna bakoitzean. Alkoholaren inguruan, 400€ko maximoa jarriko dugu hasierako alkohola erosteko, jendeak zenbat edaten duenaren arabera alkohol gehiago edo gutxiago erosiko dugu. Hasieran esan bezala, kostu finkoak eta aldakorrak daude:

Kostu finkoak: Lokalaren gastua, 1800€/hilabeteko.

Kostu aldakorrak: Sofa bakoitzak 35€ (guztira 700€), bozgorailu bakoitzak 25€ (guztira 500€), disko-bola bakoitzak 20€ (guztira 240€), Vip geletako taberna txiki bakoitzak 40€ eta gure tabernak 60€ (guztira 100€ alkohola kontuam hartu gabe, hasierako alkohola erosteko 400€). Kristal transparente bakoitzak 50€ (30 kristal transparente) eta kristal ilun bakoitzak 80€ (6 kristal ilun) (guztira 1980€)

Hasieran egin beharreko **inbertsioa** nahiko handia izango da, lokalaren lehen bi hilabeteak eta kostu aldakorrak ordaindu ahal izateko. 7000€-koa izango da inbertsioa. Hasieran diru gehiago ez gastatzeko, gu eta gure lagun batzuk hasiko gara langile moduan. Behin enpresa aurrera doala eta irabaziak handiak direla ikustean langileak kontratatuko ditugu.